

OHIKO UDALBATZARRA

Errezilgo Udaletxeko Pleno Aretoan, 2008ko abenduaren lauan, gaueko bederatzia eta hamar direnean, bildu dira, Ohiko Udal Osoko Bilkura egiteko ondoko Korporatiboak:

Iñaki Oiartzabal Zinkunegi-Alkate Lehendakaria

Joseba Iñaki Labaka Beristain-Zinegotzia.

Luis Berrondo Lanceta-Zinegotzia.

Luis Artzallus Amenabar-Zinegotzia.

Jose Luis Albisua Lasa-Zinegotzia.

Iosune Arruti Eizagirre zinegotzia ez da bilkura honetara etorriko arrazoi justifikatuengatik eta Bittor Astigarraga Zugasti zinegotzia beranduago etorriko da.

Idazkari lanetan, Leire Arteaga Zumeta Udaletxeko Bitarteko Idazkari Kontuhartzailea.

Alkateak hasera ematerako esan du puntu bat sartu nahi duela gai zerrendan jaso ez zena IGNACIO URIA MENDIZABAL JAUNAREN HILKETA DELA ETA UDAL MOZIOA. Bozketa egin dute eta aho batez onartu da gai zerrendaz kanpo zegoen puntu hau Udalbatzar honetan tratatu eta erabakitzea.

Alkateak hasiera eman dio bilkura honi ondoko gai zerrendaren arabera.

1.- AURREKO UDALBATZARREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA ONESPENA.

Hurrengo udalbatzarrean onartuko dira.

2.- KOMUNIKAZIO OFIZIALEN BERRI EMATEA.

Ez dira ematen

3.- 2008KO SAN ANTONIO JAIETAKO KITAPENA ETA BALORAZIOA.

Alkateak proposatzen du 3. Eta 5. Puntuak batera tratatzea. Zinegotzi guztiek alde bozketu dute. Ondoren, Luis Artzallus Amenabar zinegotziak hitza hartu du esanez, 2008ko San Antoniotako jaiak 6.180,35 euroko aurrekontua izan dutela. San Antonio jaiak ekainaren 13tik 15era ospatu dira eta ekainaren 21ean, larunbata, Akerra elkarteak antolatuta XVI. Usakume tiraketa ospatu zen bildingo zelaietan. Gastuak banaka aipatu ditu.

San Antonio eguneko hamaiketako herriko trikitilari eta bertsolariekin: 556,95 euro.

Lidia trikitiarekin girotze lanak: 600 euro.

Haurrentzako poniak, zekor txikiak eta beste animaliak: 300 euro.

Kupela taldea: 1.150 euro.

Dominak: 175 euro.

Bertsolariak; 600 euro.

Izer eta Lutxurdio: 550 euro.

Herri kiroleko hizlaria: 70 euro.

Borondegiko jarduerak (txokolatea, goxokiak, txorizoa, afaria): 908,40 euro.

Kamisetak: 1.100 euro.

Txistularia: 120 euro.

Ume jolasetako materialak: 161,27 euro.

Play baka: 50 euro.

Guztira: 6.180 euro.

San Martin jaiak berriz, ondoko gastuak izan ditu:

San Martin jaiak azaroaren 11, 14, 15 eta 16an ospatu ziren. Aurrekontua 9.155 eurokoa izan da. Gastuen berri eman du banaka:

Hamaiketako: 560 euro.

Ume jolasak: 180 euro.

Gaztetxoan dantza: 60 euro.

Kupela taldea: 1.150 euro.

Txingak: 200 euro.

Txapel mus txapelketak: 130 euro.

Bertso poteoa: 200 euro.

Patxi Sanzen kantaldia: 1.500 euro.

Erromeria: 525 euro.

Azokako postuak: 500 euro.

Aizkolariak: 2.500 euro.

Lidia altabozak eta trikitixa girotzea: 400 euro.

Borondegiko gastua: 1.200 euro.

Guztira: 9.155 euro.

Herriko bi jai garrantzitsuenen antolaketak 15.600 euro inguruko kostua izan dutela esan du.

Jubilatuena bidaia berriz, Urriaren 18an egin zen Durangora bidaia. Aurrekontua: Autobusa: 480 euro. Hamaiketako 334 euro eta Udaletxeko ordezkari eta txoferraren bazkaria: 110 euro. Guztira: 924 euro.

Jubilatuena bazkaria berriz, bakoitzaren aurrekontua 44 eurokoa izan dela.

Iñaki Oiartzabal Zinkunegi Alkateak hitza hartuz esan du Jubilatuen bazkarian bigarren urtea dela Errezilen enpadronatuta ez dagoen pertsona bat bazkaltzera etorri dena. Koldo Irulegi Lasa zinegotziak esan dio hemendik aurrera erroldan begiratu beharko dela bazkariko partaideak onartzeko garaian. Iñaki Labaka zinegotziak esan du berak jaien balorazioa egiteko garaian zenbait puntu azaleratu nahi dituela. Batetik, San Antonio jaietan kamisetak eta San Martinetan zapia atera zutela jai batzordekoek eta bi kasuetan ikur politikoak jarri zizkietela kritikatzan dutela. Koldo Artzallusek esan dio ikur hori jartzea jai batzordeak erabakitakoa dela. Bestalde, herri afarian jende pilaketa handia, berrehun eta piko pertsona, herri afari baino gazte afaria zirudiela. Koldo ARTzallus zinegotziak esan dio gazteak direla izena ematen dutenak. Iñaki Labakak esan dio herritarren afaria izateko eta herritarrak erakartzeko beste ekintza batzuk egin behar direla. Gainera, gazteak alkoholarekin gazteegi hasten direla eta herri afarian horrelakoak ikusi zirela. Koldok esan dio ezin dutela hori kontrolatu. Iñaki Labakak baita ere erantsi du, San Antoniotan hamaiketakoak beraiek eman behar izan zutela bezperan jakinda eta San Martinetan bezperan abisatu zirela. Beste kritika bat postre eta gazta lehiaketan ez zirela gazta irabazleen erdikak banatu han bildu zen jendearen artean ezta postreak ere. Koldo Artzallus Amenabar zinegotziak esan dio baietz banatu zirela. Iñaki Labakak galdetu dio ea herri kiroleko egurrak nola enpleatu ziren, Koldo Artzallusek esan dio egurrak kentzeko arduraduna bilatu zela trukean egurrekin gelditzekotan. Iñaki Labakak esan dio bestetan egur horiek diru truk ematen zirela bertan gelditzen zirenen artean. Azkenik Iñaki Labakak kritikatu ditu koordinazio falta izan zela, tabernakoek argindarra hartzeko terrazako kandatua puskatu behar izan zutelako eta bukatzeko esan dio taberna jarri zuten inguruak basureroa ematen zuela Koldo Artzallusek esan dio haiek kejaratu zirela basura ontziak Beteta zeudelako. Gero aipatu dute Hitza egunkarian nahasketa bat egon zela jaien egitaraua jartzerakoan. Gaineratu du autokrosari buruz ere hitz egiten egon zirela, antolatuko ote zen eta Koldo Artzallusek esan dio aseguruak ez duela asumitzen arrisku hori. Koldo Artzallusek beste gai bat aipatu du San Martin jaietako egitaraua egiterakoan Martiarena inprimategikoak internetetik ateratako argazki bat jarri zutela eta egitarauak atera eta banatu ostean pertsona bat Udaletxean galdezka hasi zela ea zenen baimenarekin erabili zen argazki hori. Idazkariak jakinerazi dio gai hori bere horretan gelditu dela.

Proposatzen da 2008ko San Antonio jaien kitapena eta San Martin jaietako aurrekontua onartzea.

Bozketa egin dute eta aho batez onartu dituzte biak.

4.- JAIETAKO TXOSNA JARTZEKO BARRA EROSTEA.

Alkateak Koldo Artzallus Amenabar zinegotziari eman dio hitza, honek esan du jaietan txosna jartzeko barra jai batzordeak edo Udalak erosi behar duen gaia atera zela Jai batzordean, hauek txosna akuratu beharrean frontoiaren gainekaldeko aparkalekuan barra batekin eta toldo batekin txosna montatzen dutela. Kostua 312 eurokoa da. Proposatzen da jaietako txosna jartzeko barra Udalak erostea onartzea.

Proposamena bozkatu dute eta aho batez onartu dute.

6.- UDALHITZ 2008-2011REN ONARPENA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioan, EUDEL, tokiko erakundeen ordezkaria eta sindikatu esanguratsuenen artean lan-hitzarmenen ibilbide luzea dago. Euskadiko Herri eta Foru Administrazioako Langileen Lan Baldintzak Arautzeko Hitzarmenarekin (ARCEPAFE) hasi ziren, eta 2006ko martxoko Udalhitz Akordioekin jarraitu zuten. Horiei esker, lan baldintza aurreratuen marko bat egituratu da eta Euskadiko Lurralde Erakundeen eraginkortasuna, kalitatea eta herritarrei zerbitzua emateko izpiritua asko garatu da.

Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legeak, 34. artikuluan, Euskadiko udal-erakunde guztientzako lan-harremanen marko bateratua finkatzea ahalbideratzen du, berariaz aitortzen baitie EUDEL bezalako udalerrien elkarteei, negoziazio-prozesuetan toki mailako erakundeen ordezkariak bere gain hartzeko aukera.

Horrela, EUDELEk sindikatuen bitartekariekiko negoziazioen ardura hartu izana Udalen eta tokiko beste erakundeen izenean, posible egiten da. Beraz, akordioak eta sektoreko hitzarmenak formalizatuko ditu, erakunde bakoitzean berehala ezartzeko, horietara atxikita eta bestelako izapiderik egin gabe. Horrek izugarri sinpletzen du negoziazioen dinamika, eta era berean, erakunde guztien arteko lan-baldintzak homogeneousatzen dira. Hori guztia oso onuragarria da bertaratutako alderdi guztientzat.

Irailaren 22an Udalhitz 2008-2010 Akordioak sinatu dira honakoien artean: EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartea, eta ELA-STV, CCOO eta UGT sindikatuak. Akordio horien bidez, euskal toki-erakundeetako funtzionario eta langileen baldintzak arautzen dira eta udaletara igorri dira, dagozkion atxikipenak gauzatu daitezten.

Bestalde, aipatu artikuluen 8. artikuluan aipatzen denez, baldintza jakin batzuk erakunde edota pertsonen eremuan mantendu ahalko dira, baldin eta Akordioa gainditzen badute, eta aurretiaz aitortutakoak badira.

Aurreko hori guztia kontuan, Errezilgo udalbatzarrean honako akordioak hartu dira:

LEHENENGO

Euskal toki-erakundeetako funtzionario eta langileen baldintzak arautzen dituzten Udalhitz 2008-2010 Akordioetara atxikitzea. Akordio horiek 2008ko irailaren 22an sinatu ziren EUDEL- Euskadiko Udalen Elkartearen eta ELA-STV, CCOO eta UGT sindikatueta ordezkarien artean.

BIGARRENA

Akordio hauek jakinaraztea EUDELi, Langileen Batzordeari, Enpresako Batzordeari, Sindikatu Atalei eta Udalean akreditazioa duten sindikatu guztiei.

Bozketa egin dute eta bertan dauden kide guztien aldeko botoarekin onartu dute proposamena.

7.- LANDAGIPUZKOA 32 DIRULAGUNTZEN ESKAERA, ALKATETZA DEKRETUEN BERRESPENA.

Alkateak jakinerazi du Gipuzkoako Foru Aldundiak Landagipuzkoa 32 programan sartuta dauden GLH udalerriek landa inguruneko azpiegituretan inbertsioak egiteko diru laguntzak banatzeko oinarri arautzaileak onartu zituela 2008ko irailaren 2an. Dirulaguntza honekin bide berriak edo daudenak konpontzeko eta urez hornitzeko obretan inbertitzen dutena finantziatuko da. Arauzko epean Errezilgo Udalaren eskaera egin da, Alkatetza Dekreto bitartez. Eskatu diren dirulaguntzak ondokoak izan dira: Errezilgo Santa Marina auzoan Albizturrek egin berri duen ur depositotik ura hartu eta Errezilgoak diren bi baserrietara ura eramatea (109.955,68 euroko aurrekontuarekin) eta Erdoiztako auzoan ur depositoa egitea (25.547,93 euroko aurrekontuarekin).

Bi dirulaguntza eskaera horiek berrestea proposatzen da.

8.- ERREZILGO HIRI ANTOLAKETAKO ORDEZKO ARAUEN 3. H.G.EKO 3/1 I.I.B.-EN HIRITARTZE PROIEKTUAREN ALDAKETA.

Errezilgo Hiri Antolaketako Ordezko Arauen 3. H.G.E.ko 3/1 I.I.B.-en Hiritartze proiektua onartu zen 2007ko abenduaren 5ean. 2008ko maiatzaren 8an proiektuaren lehen aldaketa onartu zen. Ondoren, ikusirik Borondegiko atzekaldean gas potea jarri behar zela eta gerora ezingo dela gehiago obrarik egin zonalde horretan, Borondegiko eta Etxeberri etxearen arteko zonaldean terraza bat egitea proposatu eta onartu zen hasiera batez, 2008ko irailaren

bederatzian. Proiektu honen aurrekontua 128.945,47 eurokoa da. Alkateak Dekretu bitartez onartu zuen proiektuaren aldaketa 2008ko azaroaren hamazazpian. Aldaketa honekin hasierako proiektua aldatu egiten da eskoilera berria egiten delako eta proiektuaren anpliazioa ere egiten da terrazan egitea eransten zaiolako. Aurrekontua aipatu bezela 128.945,47 eurokoa da.

Proposatzen da Errezilgo Hiri Antolaketako Ordezko Arauen 3. H.G.E.ko 3/1 I.I.B.-en Hiritartze proiektuaren bigarren aldaketa onartzea. Bestalde, 2008 ekitaldiko aurrekontuan ez dagoenez nahikoa eta egokia den kreditua aurrikusita, akordio hau aurrekontuan aipatu kreditua aurrikustera baldintzatua gelditzen da. Obra gehikuntza hau 2007ko altxortegi gerakinarekin finantziatzea proposatzen da.

Beraz, ondorengo akordioak hartzeko bozketa egitea proposatzen da:

Lehena.- 2007ko abenduaren 5ean onartutako Errezilgo Hiri Antolaketako Ordezko Arauen 3. H.G.Eko 3/1 I.I.B.-en hiritartze proiektuaren bigarren aldaketa onartzea.

Bigarrena.- Lehen puntuko aldaketa horrek suposatzen duen 128.945,47 euroko aurrekontua onartzea eta aurrekontuko 1 0000.622.512.00.01 kontu sailan kreditu nahikoa eta egokia aurrikustera konprometitzea.

Hirugarrena.- Kontratatari aldaketa honen berri jakineraztea 3 egunetako epea emanaz Udalak onartutako aurrekontuarekin eta aldaketarekin ados dagoen adierazteko.

Laugarrena.- Aldaketa honetatik eratorritzen diren egintzak sinatzeko Alkatea ahalmentzea.

Bozketa egin dute eta bertan dauden kide guztien aldaeko botoarekin aho batez onartu dituzte erabakiak.

9.- EREMU HONDATUAK LEHENGORATZEKO ETA HIRI EREMUA BIZIBERRITZEKO JARDUERAK EGITEKO DIRULAGUNTZA ESKAERA, ALKATETZA DEKRETUAREN BERRESPENA.

2008ko urriaren 13an Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrietako eremu hondatuak lehengoratzeko eta hiri eremua biziberritzeko jarduerak finantzatzeko diru laguntzak emateko programaren oinarri arautzaileak onartu zituen. Horren baitan Alkatetza Dekretu bitartez Errezilgo Hiri Antolaketako Ordezko Arauen 3. H.G.Eko 3/1 I.I.B.-en hiritartze proiektuaren 1. Fasea eta herri guneko zati baten gasifikazio proiektuaren 2. Aldaketa eta anpliazioa onartzea eta hori aurrera eramateko dirulaguntza eskaera egitea.

“Iñaki Oiartzabal Zinkunegi Errezilgo Unibertsitateko Udaleko Alkate-Lehendakariak Toki entitateak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 oinarri legearen 21.1 artikulok eta Toki

entitateen antolaketa, funtzionamendua eta eraentza juridikoa arautzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 46 artikuloei diotenari jarraituz,

Errezilgo Udala Borondegia eta Serotegi etxearen arteko urbanizazio lanak eta herri guneko gasifikazioa giten ari da. Proiektu honekin hasi ondoren Repsol enpresak jakinerazi zigun gas potea jartzen zen segurtasun zona ezingo zela etorkizunean ikuitu. Horren ondorioz, ikusirik Borondegia etxea eta Etxeberri etxearen artean zulo bat zegoela Udalak erabaki zuen zonalde hori urbanizatu eta terraza bat sortzea. Era berean, gas potea jarri behar den zoruak zetorkion pisua eusteko eskoilera bat egitea erabaki zen. Guzti hauek hasierako proiektuari erantsi eta modifikazio-anpliazio gisa proiektua idatzi zuen udal arkitektoak. Udalak 2008ko irailaren 9an egindako ez ohiko bilkuran erabaki zuen terraza eta eskoilera egitea.

Borondegia eta Etxeberri etxearen arteko zona sastrakaz jositako zulo bat da. Zulo horren gainean terraza egin ezkerreko egun erabilezina den zona bat errekueratu eta erabilgarri egingo litzateke. Beraz, proiektuaren beharra guztiz justifikatuta dago.

Ikusirik 2008ko urriak 17ko, 200 zbkia duen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrietako eremu hondatuak lehengoratzeko eta hiri eremua biziberritzeko jarduerak finantzatzeko diru laguntzak emateko programaren oinarri arautzaileak eta bide batez, 2008ko deialdia egin zela.

ERABAKI DUT

Lehena.- Errezilgo Hiri Antolaketako ordezkari arauen 3. H.G.Eko 3/1 I.I.B.-en hiritartze proiektuaren 1. fasea eta herri guneko zati baten gasifikazio proiektuaren 2. aldatzea eta ampliazioa onartzea eta hori aurrera eramateko dirulaguntza eskaera egitea.

Bigarrena.- Lanek ukitutako ondasun eta eskubideak eskuratzeko kudeaketa garaiz eta behar bezala egiteko konpromisoa hartzea.

Hirugarrena.- Diru laguntzak jasoko ez duen jarduketaren zatirako behar den kreditu zuzkidura egiteko konpromisoa hartzea.

Laugarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari jakineraztea Alkateak Dekretu hau onartu duela.

Bosgarrena.- Egiten den hurrengo udalbatzarrean Alkatetza Dekretu honen berrespena egitea, udalbatzarrak berretsiko ez balu Dekretu hau indarririk gabe geldituko litzateke.”

Proiektuaren aurrekontua 128.945,47 eurokoa da.

Proposatzen da, Alkateak Errezilgo Hiri Antolaketako Ordezko Arauen 3. H.G.Eko 3/1 I.I.B.-en hiritartze proiektuaren 1. Fasea eta herri guneko zati baten gasifikazio proiektua egiteko emandako azaroaren 21eko Dekretua berrestea eta Dekretu horretan hartzen ziren konpromezuak berrestea, hots, proiektu honen lanek ukitutako ondasun eta eskubideak

eskuratzeko kudeaketa garaiz eta behar bezala egiteko konpromisoa hartzea eta Diru laguntzak jasoko ez duen jarduketaren zatirako behar den kreditu zuzkidura egiteko konpromisoa hartzea.

Bozketa egin dute eta aho batez berretsi dute Alkateak 2008ko azaroaren 21ean emandako (eta goian transkribitutako) Dekretua

10.- 2009KO KULTURA DIRULAGUNTZAK ONARTZEA.

2009 ekitaldian Kultura eta kirol jarduerak egiteko dirulaguntzak emateko batzordeak egindako proposamena aztertu ostean, aurkeztutako eskaeren artean ondoren zerrendatzen diren dirulaguntzak emateko proposamena onartzea eta beste eskaerak baztertzea. Gastua onartzea. Erabaki hau eskatzaileei banan bana jakineraztea eta Udaletxeko Iragakien taulan publikatzea denon ezagupenerako.

DIRUZ LAGUNTZEN DIREN KULTURA ETA KIROL JARDUERAK:

ESKATZAILEA	PROIEKTUA	DIRULAGUNTZA
GAZTE TALDEA	IDI DEMAK	1.000
ATALA	KULTUR EKINTZAK	1.000
ATALA	ZOKOMIAN EGUNA	950
ERNIARRAITZ	BERTSOLARITZA	600
TOKI ALAI	IKASTAROAK	1.000

KANPO GELDITZEN DIREN PROIEKTUAK

ESKATZAILEA	PROIEKTUA	EZ BETETZEAK
ATALA	IBARBI SAGARRA	Ez ditu zehazten aurtengo ekintzak
KONTSEILUA	2009ko JARDUERA	Ordenantzaren 8. artikulorekin arabera kanpo geratzen dira, herritik kanpora egiten diren ekintzak
ERREZILGO AZOKA	ERREZIL SAGARRAREN AZOKA EGUNAREN ANTOLAKETA	Beste dirulaguntza baten bitartez egingo da.

11.- ORDAINAGIRIEN ONESPENA.

Ez daude.

12.- ALKATETZA BERRIAK ETA EBAZPENAK.

- Garratza baserriaren fatxada txukuntzeko baimena.
- Saiazek eskatutako kreditua bermatzeko Errezilgo udal Finantziatorako Foru Fondoa egilestea.
- Amaia Zabala Otegiren amatasun baja, laktantziaren akumulazioa onartzea.

- J.L.S Jn.ari San Martin jaietan ekuadorreko artesia saltzeko postua jartzeko baimena.
- 2003tik 2007 arteraino zor diren ibiagailuen gaineko zergaren bahiturak egitea onartu.
- Landagipuzkoa 32ren baitan bi baserri bide konpontzeko dirulaguntza eskaera, Erkiziko sarrera eta Artauntzako bidea.
- Landagipuzkoa 32ren baitan bi ur deposito jarri eta ura banatzeko proiektuak egiteko dirulaguntza eskatu da, bata Santa Marinako auzoan eta bestea Erdoiztako auzoan.
- JM.Z.A ardientzako estalpe bezala eta biltegirako artegia eraikitzeke obra baimena.
- Erniope elkarteari San Martin jaietan taberna bezela irekitzeko baimena.
- Ihintza Larrañagari San Martinetan frontoian taberna jartzeko baimena.
- JT.G.A Jn.ari segregazioa egiteko baimena.
- INEMen bitartez Errezilgo bide publikoaketa bide bazterrak garbitzeko eta peoi lanetarako langabetu bat hartzeko proiektua ez egitea erabakitzea.
- 2008ko urtariletik irailarterako ordainagirien onespina.

13. puntua bezela IGNACIO URIA MENDIZABAL JAUNAREN HILKETA DELA ETA, UDAL MOZIOA sartzea onartu da udalbatzarra hasterakoan.

Alkateak aurkezten duten mozioa irakurri du:

Errezilgo udalbatzarrak, atzo eguerdian Ignacio Uria Mendizabal jaunaren hilketa del eta hurrengo hau adierazten du:

1. Ignacio Uria Mendizabalen senitarte eta lagunei gure doluminak eta gure elkartasuna adierazi nahi diegu momentu gogor hauetan.
2. Errezilgo udalak ber erabateko gaitzespena adierazten du erahilketa honen aurrean.
3. Euskal enpresariei gure gertutasuna helarazten diegu eta gure herriaren etorkizunaren eta ongizatearen alde egiten ari diren lana eskertzen diegu.
4. ETA soberan dago eta armak uzteko eskatzen dio udal honek.
5. Bihar herritar guztiak Azpeitiko ekitaldira gobidatzea.
6. Mozio hau herriari zabaltzea, etxez etxeko gutunaren bitartez eta Hitza egunkarian argitaratzea.

Koldo Artzallus Amenabar zinegotziak hitza eskatu du esateko kontraesanean sartzen direla mozio hau aurkeztean, lehen esana dutelako ez direla politikan sartuko, ANVk proposatu dituen moziotan hori esaten dutela. Iñaki Oiartzabal Zinkunegi Alkateak, esan dio mozio hau sartu dutela Inaxio Azpeitikoa zelako, ezagutzen dutelako, familiarengatik, pertsona bezela eta

gertutasunagatik egiten dutela. Koldok esan dio puntu batzuk onartuko lituzketela baino beste batzuk ez, gainera ez dakigula oraindikan ETA izan den edo ez.

Bozketa egitea proposatu du Alkateak, bozketa egin dute eta mozioa onartu da Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki Labaka Beristain eta Luis Berrondo Lanceta zinegotziaren aldeko botoekin eta Luis Arzallus Amenabar eta Jose Luis Albisua Lasa zinegotziaren kontrako botoekin.

14.- NORBERAK LEKARKENA, GALDERAK ETA ERREGUAK

Jose Luis Albisua Lasa zinegotziari eman dio Alkateak hitza, honek esan du poztu dela ERAU taldeak kanteraren gaiaren inguruan hartu duen erabakia. Gaueko hamarrak eta hogeirenean Bittor Astigarraga Zugasti zinegotzia sartu da Pleno Aretora. Jose Luis Albisua Lasa zinegotziak jarraitu du esaten ona litzatekela Plenoko erabakia izatea. Joseba Iñaki Labaka Beristain zinegotziak hitza hartu du esateko Jose Inazio Añoikoak publikoki esan duela ehun hektarea baino gehiago okupatuko zituen kantera egiteko baimena izapidatzen ari zela Udala eta hori gezurra dela. Gaineratu du bere garaian Gorcka Tolosak Hitzako iritzi artikulo batean esan zuela herrian horrelako eragina izango zuen gai batean udalbatzarreko 4 boto alde 3 kontrari esker alde aurretik hartutako erabaki batek irabaziko zuela. Joseba Iñakik esan nahi dio ez zela erabaki sinplista eta behin eta berriz hanka sartu duela bere iritzi artikuloekin egindako balorazio eta emandako informaziotan eta zuzendu ditzala. ERAU taldea kanteraren aldeko eta kontrakoak baloratzen aritu dela eta sakondutako erabaki bat izan dela.

Luis Arzallus Amenabar zinegotziak esan du Hitzari esan beharko zaiola informazioa ematerako aurretik enteratzeko eta ondo emateko.

Bestalde galdetu du ea non dagoen ESAIT taldeak emandako zapia. Iñaki Oiartzabal Zinkunegi Alkateak erantzun dio gordeta dagoela eta kokapena bilatu nahi bazaio proposatu eta erabakiko dela.

Luis Albisua Lasa zinegotziak esan du Atalari Zokomian aldizkaria ateratzeko Udaletxeko artxibo ondoko gela uzteko gaiari buruzko informaziorik ez zaiola eman eta Kulturako arloa berak eramaten badu gutxienez gai horiei buruzko informazioa eman beharko litzaiokela. Gaineratu du goiko sala horretan liburu eta aldizkari asko zeudela eta horiek herriaren ondasuna direla, Iñaki Oiartzabal Zinkunegi Alkateak esan dio liburuak kajatan sartu eta gordeta daudela, aldizkariak berriz zaharrak bota eta balio ez zuten liburuak ere bota zirela. Jose Luis Albisua Lasa zinegotziak esan dio, hala ere hurrengo baterako alde aurretik abisatzeko.

Beste gairik ez dagoenez Alkateak amaitutzat eman du bilkura hau, gaueko hamarrak eta erdi direnean eta nik, Idazkari gisa, Akta jaso dut.

Alkateak

B. Idazkari Kontuhartzaileak